# JARRAIBIDE ORRIA - TEST

## EZ IDATZI EZER HARIK ETA AGINDUA EMAN ARTE

1. Erantzun-orriak bi ale ditu, bata zuria eta bestea horia. Ez banandu horiek azterketa bukatu arte. Ariketa amaitu ondoren, orri zuria bakarrik entregatu beharko duzu. Gorde zuretzat orri horia.

2. Jarri erantzunen orrian azterketaren eredua: **A edo B**. Eredua galdera-koadernoaren karatulan dago adierazita. Ezer agertzen ez ba da, markatu **A** eredua.




3. Galdera bakoitzak lau aukera ditu: A, B, C eta D. Galdera eta dagozkion lau erantzun-aukerak irakurri ondoren, erantzun-orrian jarri behar duzu zure ustez zuzena den erantzuna. Galdera bakoitzeko erantzun zuzen bakarra dago.




4. Erantzunen gunean, bi lerro daude. Adi egon erantzunak adieraztean. Bete aukeratu duzun laukitxoa goiko lerroan. Boligrafo-marka ezin da ezabatu. Zure aukera ezeztatzeko, markatu berriro beheko lerroan eta erantzun berria goiko lerroan, orri horiaren atzeko aldean ikusiko duzun bezala.




5. 8,4 oinarri orokorrean aurreikusitako HE egiaztatzeko proba egin nahi dutenek egiaztatu nahi duten HE adierazi beharko dute erantzun-orrian. Gogoratu proba bakarra egin daitekeela, kontuan hartu gabe zenbat deialditara aurkeztu zaren.

6. 


Azterketak dirauen artean, mahai gainean eduki ahalko diren gauza bakarrak hauek izango dira: jarraibide-orria, galderen koadernotxoa, erantzun-orriak, boligrafoa eta, beti ikusgai, NANa, pasaportea edo gida-baimena.

7. Azterketa egin bitartean, erabateko isiltasuna egon behar da. Telefono mugikorrak itzalita eta mahaitik kanpo gordeta egongo dira. Proba egiten den aretoan, hautagaiek ezin izango dute eduki edo erabili inolako dispositiborik edo baliabide teknologikorik.

8. Ez da erantzungo galderen idazkerari edo edukierari buruzko itaunik.

9. Baldin eta iruzurren bat hautematen bada, egin duena probatik eta hautapen prozesutik kanporatua izango da berehala; beraz, prozesutik aterako den lan poltsako kide izateko aukera galduko du.

10. Emandako denbora baino lehen amaitzen baduzu, jaso besoa. Orri horia zeuretzat gorde eta eman orri zuria zaintzaile bati. Gero, azken hamabost minututan izan ezik, gela utzi ahal izango duzu. Azken 15 minutu horietan zure lekuan egon beharko duzu erantzun-orri guztiak batu arte.

11. Azterketa denbora agortuta, erantzun orriak batuko dira. Azterketa amaitu eta gero SOILIK une horretan, azterketaren koadernotxoak eraman ahal izango dituzu, nahi baduzu. Koadernotxoak eta erantzun zuzenak webgunean argitaratuko dira.

12. Prozesu honetako oposizio faseko behin-behineko emaitzak UPV/EHUko orrialdean argitaratuko dira: www.ehu.eus, TEKAZELeko (Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak) atalean eta lan-eskaintzaren atalean. Emaitzak ikusi ahal izateko, bigarren atalean erregistratuta egon behar da.

    Momentu honetatik aurrera, hautagaiek 10 egun balioduneko epea izango dute emaitzei buruz erreklamazioak egiteko. Aztertu ondoren, Epaimahaiak behin-betiko emaitzen zerrenda argitaratuko du, goian aipatutako helbidean.

13. Kontsulta itzazu behin-betiko emaitzen zerrendak: gerta liteke galdera batzuk baliogabetzea aurkezten diren erreklamazioen arabera eta, ondorioz, behin-behineko emaitzak aldatu behar izatea.

14. Bete itzazu erantzun-orriaren goiburuko datuak.

**ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK**

## AZTERKETA ORRIA NOLA BETE

IRAKUR ITZAZU ORRI HONETAN EMATEN ZAIZKIZUN OHARRAK ETA **ITXARON EZAZU**, MESEDEZ, ZURE GELAKO AZTERTZAILEAK AZALPENAK EMATEN HASI ARTE.

Erantzun-orri hau ordenagailu batek zuzenduko du. Oso garrantzitsua da, beraz, bertan idatziko dituzun datuak garbi eta okerrik egin gabe jartzea.

Azterketa egiten hasi baino lehen bete behar dituzu eskatzen zaizkizun datuak zure gelako aztertzaileak esaten duenean.

## *FORMA DE CUMPLIMENTAR LA HOJA DE EXAMEN*

*LEA LAS INSTRUCCIONES QUE SE DAN EN ESTA HOJA Y **ESPERE** POR FAVOR HASTA QUE EL EXAMINADOR DE SU AULA DÉ LAS EXPLICACIONES.*

*Esta hoja será corregida por un ordenador. Por lo tanto es muy importante que rellene los datos que se le solicitan de forma clara y sin errores.*

*Tiene que rellenar los datos que se le piden antes del comienzo de la prueba, cuando lo indique el examinador correspondiente a su aula.*

## Ez idatzi ezer aztertzaileak esan arte

## *No escriba nada hasta que lo indique el personal examinador*

**Erantzun-orriaren goialdean, eskuinean, zure NAN zenbakia idatzi eta markatu behar duzu, ondorengo adibideetan ikus dezakezun bezala:**

***En la parte superior derecha de la hoja de respuestas debe figurar su número de DNI como se refleja en los ejemplos siguientes:***

**N.A.N. / *D.N.I.*:** 14922318







**N.A.N. / *D.N.I.*:** 423188




## ERANTZUNETARAKO ALDEA

Zure aukera jartzeko, goiko ilaran aukerari dagokion laukitxoa belztu. Oraingoan, C Aukera hartu dugu (begiratu arretaz adibidea).




Begiratu aurreko aukera nola baliogabetzen den eta beste erantzun bat nola jartzen den. C Aukera balio gabetu egiten dugu eta A Aukera hartzen dugu (begiratu arretaz adibidea).




**OHARRA: KASU HAUEK ADIBIDEAK DIRA, BERAZ, EZ IDATZI HORIEK ZURE AZTERKETA ORRIAN.**

## *ZONA DE RESPUESTAS*

*Rellene la casilla correspondiente a su elección en la fila superior. En este caso hemos elegido la Opción C (observe el ejemplo).*




*Vea cómo se anula la elección anterior y se contesta una nueva. Se anula la Opción C y se elige la Opción A (observe el ejemplo).*




***NOTA: RECUERDE QUE ESTOS SON EJEMPLOS Y EN NINGÚN CASO TRANSCRIBA LOS MISMOS A SU HOJA DE RESPUESTAS.***